

## GIG 44

## OLATZEKO POLJEA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,50**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Olatzeko haran ezaguna, Erlo formazioko kareharri urgondarren gainean sortua, eredu bikaina da oin-mailako poljeak nolakoak diren ikusteko. Poljearen alde nagusia, Olatzeko ermita dagoen hori bera, obalatua da itxuraz, eta 35 hektareako azalera du, gutxi gorabehera. Handik bi ibar sortzen dira: Añu ibaiarena, N250°E norabidean, eta Olatzgoikoa ibaiarena, N200°E norabidean. Bi ibar horiek ere Olatzeko poljearen parte dira, eta horrek argi eta garbi adierazten du norabide horietan dauden bi failatan zehar gertatu dela disoluzio karstikoa. Olatzeko poljeko haranaren hondoak 125 hektarea inguru ditu guztira.

Lasturko poljea bezala (GIG 45), Olatzeko ere oin-mailakoa da: sakonunea maila freatikoa markatzen duela, alegia. Oinarrizko gainazala, berriz, bi faktorek daukate zulatuta: batetik, elkar ebakitzen duten dolina ugarien sareak (25 m eta 75 m bitarteko diametroa dute dolinek); eta bestetik, Añu eta Olatzgoikoa ibaien ibilguk, poljearen oin-mailatik gora 25 metro baino gehiagoko ebakidura baitute egina, gaur egungo maila freatikoa poljea eratu zen garaiko maila baino beherago dagoela eta.

Olatzeko urak lurpeko sistemara iragaten dira, bai dolinetan zehar bai Kobaldeko sarbegi handian zehar; azken horretan behera desagertzen dira, hain zuzen, Añu nahiz Olatzgoikoa ibaien urak. Benetan ikusgarria da Kobaldeko sarbegia, neurritz itzelezkoa, eta sedimentu buztintsu eta hareatsuak aurkitu dira han, bai eta *slackwater* motako konglomeratuak ere. Zenbait iturburutara eramaten ditu Olatzeko urak: zuzen joanda 3 km aurrerago Deba ibaiaren ezkerreko ertzean dauden iturburuetara. Egiaztatu denez, gehienetan oso bizkor joaten da ura (gutxi gorabehera, 170 m/h-ko abiaduran), eta horregatik, jario horiek ez dira iristen eremu urez asera, ezta igarotzen ere akuiferora.

## NOLA BERTARATU

Mutrikun Gi-3562 errepidea hartu behar da, Olatz auzora.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ*, haranean zeharreko bidean oinez joanda edo Miruaitzen gailurretik.



Olatzeko poljearen alde nagusiaren ikuspegi orokorra; neurri handiko dolinak gainjarrita egoteak markatzen du lekua.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**  
X= 548094 m / Y= 4792983 m / Alt.= 199 m



Kobaldeko sarbegia; hemendik behera desagertzen dira poljeko bi ibaiak.